

Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen jarduera 2023ko ekitaldian

2016ko irailaren 16an, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretua argitaratu zen. Dekretu horren helburu bakarra da euskal administrazio publikoek, beren jardun-eremuan, herritarrek informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskaerei emandako ezezko, berariazko edo ustezko, ebazpen ororen aurkako erreklamazioei erantzutea, aukeran eta administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2016ko urriaren 6ko Aginduaren bidez eratu zen Batzordea; handik aurrera, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren aginduen bidez, hainbat kargu-uzte eta izendapen egin dira, kideek hala eskatuta edo agintaldia amaitzeagatik (2017ko azaroaren 15eko Agindua, 2021eko uztailaren 7koa eta 2023ko martxoaren 8koa).

2021eko ekitaldian, aldaketa bat izan zen Lehendakaritzan, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoari buruzko Dekretuak Gobernu Irekiaren Zuzendaritzari esleitu baitzion Batzorde horren presidentetza; ordura arte Herritarrei Arreta Emateko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak zuen. Presidente berria apirilaren 20ko 129/2021 Dekretuaren bidez izendatu zen, eta 2021eko maiatzaren 24ko bilkuran hasi zen Batzordean.

Erreklamazioak, erreklamazioa jarri zaion erakunde motaren eta 2016-2023 aldian emandako ebazpen motaren arabera.

2023ko ekitaldian 132 erreklamazio jaso dira, eta guztiak ebatzita daude txosten hau aurkeztu den egunean. Ez dira 2023an ebatzi diren 2022ko erreklamazioen datuak sartu. Taula honetan ikusten da arreta jaso duten erreklamazioen bilakaera. Hala, taulan ageri denez, hazkunde esponentziala izan zen 2016. urtetik 2018. urtera bitartean; 2019ko ekitaldian, berriz, behera egin zuen zertxobait, eta 2020. urtean berriro ere gora, eta are nabarmenago, oraindik, 2021ean eta 2022an; 2023an, berriz, hazkunde txikiagoa izan du.

URTEA	ERREKLAMAZIOEN EBAZPENAK	UDALEK INFORMAZIO-ESKAERARI EMANDAKO EZEZKOAREN AURKAKOAK	FORU-ALDUNDIEK INFORMAZIO-ESKAERARI EMANDAKO EZEZKOAREN AURKAKOAK	EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAREN EZEZKOAREN AURKAKOAK	BESTE ERAKUNDE BATZUEN EZEZKOAREN AURKAKOAK
2016	Baietsiak	1			
	Ezetsiak				
	Ez onartuak				
	Atzera egiteak				



	Artxibatuak					
	Deribatuak		1			
guztira	2	1	1	0	0	
2017	Baietsiak	13	1	7		
	Ezetsiak				1	
	Ez onartuak	3		3		
	Atzera egiteak	1		2		
	Artxibatuak	1		1		
	Deribatuak					
guztira	33	18	1	13	1	
2018	Baietsiak	54		7	5	
	Ezetsiak	5		3		
	Ez onartuak	9		4		
	Atzera egiteak	12		1		
	Artxibatuak					
	Deribatuak					
guztira	100	80	0	15	5	
2019	Baietsiak	41		6		
	Ezetsiak	5		4		
	Ez onartuak	11	3	4		
	Atzera egiteak	8				
	Artxibatuak	1		1		
	Deribatuak					
guztira	84	66	3	15	0	
2020	Baietsiak	29		29		
	Ezetsiak	1		15		
	Ez onartuak	6	4	11		
	Atzera egiteak	3				
	Artxibatuak	2				
	Deribatuak		2			
guztira	102	41	6	55	0	
2021	Baietsiak	52		29		
	Ezetsiak	15		10		
	Ez onartuak	9	1	4		
	Atzera egiteak	4		3		
	Artxibatuak					
	Deribatuak			1		1
guztira	129	80	2	46	1	
2022	Baietsiak	24		64		
	Ezetsiak	6		18		
	Ez onartuak	8	5	18	1	
	Atzera egiteak			2		

	Artxibatuak	2		5	
	Deribatuak				
guztira	153	40	5	107	1
2023	Baietsiak	33		43	
	Ezetsiak	1		8	
	Ez onartuak	30	1	12	1
	Atzera egiteak	1			
	Artxibatuak	1		1	
	Deribatuak				
guztira	132	66	1	64	1
2016-2023 GUZTIRA	735	392	19	315	9
	2021era arte	% 63.5	% 3	% 32	% 1,5
	2022ra arte	% 54.06	% 2.99	% 41.63	% 1.33
	2023ra arte	% 53.33	% 2.59	% 42.86	% 1.22

Ikus daitekeenez, 2016tik 2023ra bitartean, **erreklamazioen % 53,33 EAEko udalek informazio publikorako sarbidea ukatu izanagatik edo emandako informazioarekin ados ez egoteagatik izan dira; % 42,86, EAEko sektore publikoari lotuta daude**, eta % 3,81, beste erakunde mota batzuei, hala nola profesionalen elkargoei edo Batzordeari zuzentzen zaizkion beste erakunde batzuei, nahiz eta formalki foru-aldundietako edo estatuko gardentasuna bermatzeko organoei zuzendu behar zaizkion.

2020. urtean, aldatu egin zen joera; izan ere, EAEko sektore publikoak informazioa eskuratzeari emandako ezezkoen edo emandako informazioarekin ados ez egotearen ondoriozko erreklamazioen kopurua (55) udalek jasotako kopurua baino handiagoa izan zen (41). 2021ean, ordea, aurreko joera errepikatu zen, eta, beraz, erreklamazio gehienak udalek sarbidea ukatzeagatik edo haiek emandako informazioarekin ados ez egoteagatik dira: 80 eta 46, hurrenez hurren. 2022. ekitaldian, aldatu egin zen joera; izan ere, EAEko sektore publikoak informazioa eskuratzeari emandako ezezkoen edo emandako informazioarekin ados ez egotearen ondoriozko erreklamazioen kopurua (107) ia hirukoiztu egin zuen udalek jasotako kopurua (40). Hainbat arrazoiengatik izan daiteke; esate baterako, autonomia-erkidegoko gobernuak eskubide hori gehiago hedatu duelako. Hala ere, azpimarratzekoa da bi sindikatuk eta enplegatu publikoren batek erreklamazio asko egin dituztela, negozio kolektiboarekin eta Eusko Jaurlaritzako plantillak egonkortzeko prozesuarekin lotutako informazio-eskaerei lotuta (51 erreklamazio); ez da halakorik gertatu, ordea, udalen kasuan. 2023an, ordea, berdindu egin dira euskal sektore publikoan (64) eta udaletan (66) jaso diren erreklamazioak.

Udalei dagozkien erreklamazioen kasuan, erreklamazio gehienak toki-administrazioaren administrazio-isiltasunaren ondorioz jarri direla ikusten da; aurrerago aztertuko ditugu.

Foru-aldundietako gardentasuna bermatzeko organoen erreklamazioak.

Foru-aldundiek gardentasuna kontrolatzeko organo espezifiko bat dute (Arabako Foru Aldundian 2017an sortu zen; Bizkaikoan 2016an, eta Gipuzkoakoan 2019an), baina orain arte nahiko jarduera gutxi izan dute, webguneetan argitaratuta dituzten ebazpenak ikusita. Berme-organoren horiek nahitaez argitaratu behar dituzte, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24.5 artikuluen arabera.

URTEA	ARABAKO Foru Aldundia: Gardentasunaren Foru Kontseilua	BIZKAIKO Foru Aldundia: Erreklamazioen Batzordea	GIPUZKOAKO Foru Aldundia: Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordea
2016			
2017			
2018	1	3	
2019	1	8	2
2020	4	7	3
2021	6	7	3
2022	6	13	1
2023	1	6	2
GUZTIRA	19	44	11

Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordean jasotako erreklamazioen arrazoiak: administrazio-isiltasuna.

Azpimarratzekoa da 2016-2023 aldian, erreklamazio gehienek **kausa izan dela egindako eskaerak ez dutela erantzunik jaso**, hau da, administrazio-isiltasuna. Izan ere, 20.4 artikulua aplikatuz, erantzuteko gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertu behar da.

Erreklamazioen % 65, EAEko administrazioek erantzunik eman ez dielako jarri dira; hau da, % 82 toki-erakunde kasuan, eta % 45 EAEko sektore publikoaren kasuan.

Horrekin pentsatu behar da toki-erakundeek, batez ere, ez dutela oraindik beren administrazio-egituretan eta antolaketa-kulturan barneratu epe barruan ebazteko betebeharra, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20.6 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Horren arabera, betebeharrak hori behin eta berriz ez betetzea «arau-hauste astuntzat hartuko da, ez-betetze horien erantzuleei arauetan aurreikusitako diziiplina-araubidea aplikatzeari dagokionez». Nabarmendu behar da erreklamazioen % 35 bakarrik direla emandako informazioarekin ados ez egoteagatik edo berariaz informaziorako sarbidea ukatzeagatik.

Egia da, kasu askotan (23 erreklamazio, 2023. urtean), erakundeak eskatutako informazio guztia edo zati bat Batzorde honek erreklamazio-espeditzea izapidetzean emandako entzunaldi-epean ematen duela. Horrek erreklamazioa baiestea dakar, arrazoi formalengatik bakarrik bada ere, baina kalte egiten dio interesdunari, atzerapena eragiten baitu informazioa eskuratzeko eta eskaera bi aldiz izapidetzera behartzen baitu (eskaera eta erreklamazioa).

URTEA	ADMINIST RAZIO- ISILTASUN A, UDALEK	ADMINIST RAZIO- ISILTASUN A, FORU- ALDUNDIE K	ADMINIST RAZIO- ISILTASUN A, ESTATUK O ADMINIST RAZIOAK / BESTE BATZUEK	ADMINIST RAZIO- ISILTASUN A, EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA K	ERREKLAMAZIO KOPURUA, ADMINISTRAZIO- ISILTASUNAGATIK	GUZTIRA JASOTAKO ERREKLAMAZIOE N KOPURUA	ADMINISTRAZ IO- ISILTASUNARE N %
2016	1	1			2	2	% 100
2017	14	1		11	26	33	% 79
2018	74			12	86	100	% 86
2019	53	1		3	57	84	% 68
2020	36	4		30	70	102	% 69
2021	66		1	27	94	129	% 73
2022	32	3	1	28	64	153	% 42
2023	45	1	1	32	79	132	% 60
guztira	321	11	3	143	478	735	% 65
Erreklamazioak, guztira	392	19	9	315		735	
Guztira, isiltasun aren %	% 82	% 58	% 33	% 45	Isiltasunaren ehunekoak erakunde-motaren arabera, jasotako erreklamazioei dagokienez		

EAEko sektore publikoko erakundeen erantzun-maila (% 55) tokikoena baino nabarmen handiagoa bada ere (% 18), ezinbestekoa da helburua informazio publikoa eskuratzeko eskaera

guztiei erantzutea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20. artikulua aplikatuz; izan ere, araua indarrean jarri zenetik 8 urte igaro dira, eta antolaketa-eredua eta prozedura elektronikoa erabat ezarrita daude, 2015eko urtarrilaren 13an Gobernu Kontseiluak onartu zuenetik. Joera urtez urte hobetzen ari zen arren, 2023an areagotu egin da administrazio-isiltasuna, eta hori ez dator bat gardentasunaren kulturaren bilakaera egokiarekin.

Informazio Publikoaren Sarbidarako Euskal Batzordeari aurkeztutako erreklamazioen ebazpenak.

Informazio Publikoaren Sarbidarako Euskal Batzordeak emandako ebazpen motei dagokienez, joerari eusten zaiola nabarmendu behar da; izan ere, **2016-2023 aldi osoan, ebazpenen % 59,59 baiesleak izan ziren, % 20,14 ez onartzekoak eta soilik % 12,52 ezesleak.** Beraz, pentsatzekoa da gure administrazio publikoetan nagusi izan behar duen gardentasunaren kulturaren aurrera egiten jarraitu behar dugula. 2023an, erreklamazioen % 57,58 onartu ziren.

Ezespenen arrazoiak dira: kasu askotan, eskatutako informazioa ez edukitzea, eskatu zaion erakundearen eskumenekoa ez delako edo dagoena emanda dagoelako, informazioa eskuratzeko eskubidea dakarren prozedura bat ez izatea, edo baldintza formalak ez betetzea. Oso gutxi ezesten dira Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak 14. artikuluan ezartzen dituen **informazioa eskuratzeko mugak aplikatzeagatik** edo 15. artikuluan arautzen den datu pertsonalen babesagatik. 2023an, jarritako erreklamazioen % 6,82 baino ez da ezetsi.

Ez onartzeko arrazoi nagusia da irekita dauden prozeduretan interesa duten pertsonak izatea, eta, beraz, araudi espezifikokoaren bidez eskuratu behar dela informazioa, eta, kasu batzuetan, epez kanpo jarritako erreklamazioak izatea edo errepikakorrak edo erreklamazioa aurkeztu ezin izatea. Gutxiago dira gehiegizko edo legearen gardentasun-asmoarekin justifikatzen ez diren eskaerak. 2023an, onartu gabeko erreklamazioak % 33,33 izan dira; hau da, 44 erreklamazio. Horietatik 24etan, oraindik irekita dagoen prozedura batean interesdun izatea izan da ez onartzeko arrazoiak.

ERREKLAMAZIO-EBAZPENAK	UDALEN EZEZKOAREN AURKAKOAK	FORU-ALDUNDIEN EZEZKOAREN AURKAKOAK	EAE-KO SEKTORE PUBLIKOAREN EZEZKOAREN AURKAKOAK	BESTE ERAKUNDE BATZUEN EZEZKOAREN AURKAKOAK	2016-2023 GUZTIRA	%	2023	%
Baietsiak	247	1	185	5	438	% 59,59	76	% 57,58
Ezetsiak	33		58	1	92	% 12,52	9	% 6,82
Ez onartuak	76	14	56	2	148	% 20,14	44	% 33,33



Atzera egiteak	29		8		37	% 5.03	1	% 0.76
Artxibatuak	7		8		15	% 2.04	2	% 1.52
Deribatuak		4		1	5	% 0,68		
	392	19	315	9	735	% 100	132	% 100

Erreklamatzailen tipologia eta erabilitako interakzio-kanala.

Erreklamatzailen % 61,7 gizonak izan dira 2016-2023 aldi osoan; **emakumeak % 15,1 bakarrik**, eta pertsona juridikoak % 23,1. Esparru honetan ere gertatzen da genero-arrakala bat, denboraren erabileran dagoen desberdintasunarekin zerikusia izan lezakeena, emakumeek denbora gehiago ematen dutelako etxeko eta zaintzako lanetan, eta, beraz, espazio publikoan parte hartzeko prestasun txikiagoa dutelako, edo, agian, baliabide elektronikoen erabileran dagoen aldea azkar murrizten ari den arren, gizonen eta emakumeen artean oraindik dagoen arrakala digitalarengatik, bereziki, adin gehiagoko emakumeen artean, gehien erabiltzen den kanala elektronikoa baita. Segur aski, herritarrek legea eta beren eskubideak erabiltzeko dituzten tresnak ez ezagutzeak ere izango du eragina.

Bestalde, **interakziorako gehien erabiltzen den kanala elektronikoa da, eta hazten jarraitzen du: 2023an, interakzioen % 97** kanal horretatik izan baitira, eta 2016-2023 aldi osoan, berriz, **interakzioen % 87,07**; posta-interakzioa, berriz, % 10,88 izan zen, eta aurrez aurrekoa % 2,04.

URTEA	Generoa			Interakzio-kanala		
	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Pertsona juridikoa	Posta	Aurrez aurrekoa	Elektronikoa
2016		1	1	1		1
2017	26	7		21		12
2018	82	16	2	23		77
2019	75	7	2	5	1	78
2020	57	16	29	8	14	80
2021	64	12	53	10		119
2022	74	24	55	8		145
2023	76	28	28	4		128
guztira	454	111	170	80	15	640
%	61,7	15,1	23,1	10,88	2,04	87,07

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren aurrean errekurtsua jarritako Batzordearen ebazpenak.

2016-2023 aldian, **Informazio Publikoaren Sarbidarako Euskal Batzordearen 8 ebazpenen aurka jarri da errekurtoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian**; horietatik 5, 2018ko espedientei, eta bana 2019ko, 2021eko eta 2022ko espedientei. 7 espedientetan eman da epaia, eta **kasu guztietan ezetsi egin da Informazio Publikoaren Sarbidarako Euskal Batzordearen ebazpenaren aurka jarritako errekurtoa, eta beraz, berretsi egin da errekurtoa jarri zaion ebazpena eta ezetsi demandatzailearen nahiak. Horrek erakusten du finkatzen ari dela gardentasuna bermatzeko organoetan aplikatzen den jurisprudentzia-irizpidea.**

Administrazioarekiko auzi- errekurtso		Erreklamazioare n espediente- zenbakia	IPren Sarbidarako Euskal Batzordearen ebazpen-zk.	Epaia		
Prozedura arruntaren zk.	Demandatzaile lea			Epai- zenbakia	Epaitzaren data	Epaitza
667/2018	Bizkaiko Erizainen Elkargo Ofiziala	2018/000061	19/2018	62/2021	2021/02/17	Errekurtsoa ezestea
70/2019	Oñatiko Udala	2018/000136	69/2018	379/2021	2021/10/19	Errekurtsoa ezestea
75/2019	UPV-EHU	2018/000098	34/2018	369/2021	2021/10/05	Errekurtsoa ezestea
134/2019	Euskal Trenbide Sarea (ETS)	2018/000123	57/2018	445/2021	2021/11/12	Errekurtsoa ezestea
260/2019	Arrasateko Udala	2018/000176	3/2019	5/2022	2022/01/11	Errekurtsoa ezestea
469/2020	FJAD	2019/000276	98/2019	505/2022	2022-10-22	Errekurtsoa ezestea
874/2021	GGs	2021/000338	110/2021	515/2023	2023-11-9	Errekurtsoa ezestea
651/2022	MLP	2022/000171	51/2022			

Aurreko txostenetan jada esan dugun legez, nabarmendu behar da kontrol-erakunde hau, **Informazio Publikoaren Sarbidarako Batzordea, eginkizun oso mugatu batekin sortu zela, aldi baterako aurreikusten baitzen.** Eginkizun hau zuen: EAEko administrazio publikoek beren jarduketa-eremuan emandako ebazpen ezestle berariazko edo ustezko ororen aurka aurkeztutako aukerako erreklamazioei bakarrik erantzutea, administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik. Aldi baterako izaera horrek mugatu egiten ditu eman beharko lituzkeen bermeak, batetik, eskumenik ez duelako ematen dituen ebazpenen betetzearen gaineko jarraipena egiteko, ez baitu zehapen-ahalmenik, eta, bestetik, publizitate aktiboaren betebeharrak ez-betetzeagatiko erreklamazioak kontrolatu eta ebazteko eskumenik ere ez duelako, ez eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintza beharrezkoen bidez eta arloan jarduteko irizpideak eman ezgardentasunaren kultura sustatzeko ere, nahiz eta horrek guztiak EAEko administrazio publikoen multzoak jokabide homoginoa izaten lagunduko lukeen.

Gabezia horiek, gutxienez, arindu egin litezke, gardentasunari buruzko euskal lege bat aldarrikatuta. Lege horrek berme-organo bat sortuko luke, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa izango lukeena, eginkizunak edozein izanda ere, eta ahalmena izango luke publizitate aktiboko betebeharren esparruan jarduteko, zeinetan ebazpenak eman ahalko lituzkeen ez-betetzea eteteko eta dagozkion diziplina-jarduketak hasteko hartu beharreko neurriak ezartzeko, bai eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko ere, informazio publikoa eskuratzeko aukerako erreklamazioak bideratzeari dagokionez, edo, hala badagokio, erreklamazio horietan bitartekaritza-prozedurak kudeatzeko, betiere honela antolatuta: erakundearteko organo aholku-emaile bat izatea, Legebiltzarraren kontrolpean egongo litzatekeena, zeinak, zalantzarik gabe, eraginkortasuna eta euskal administrazio publikoetan gardentasunaren kultura ezartzeko eragina areagotuko bailituzke.

Gardentasun-ataria.

Batzordeak gardentasun-atari bat du (<https://www.gardena.euskadi.eus/iristeko-eskubidea/>) eta aldian behin eta eguneratuta argitaratzen du jarduketa publikoaren funtzionamenduari eta kontrolarekin erlazionatuta dagoen jardueraren gardentasuna bermatzeko esanguratsua den informazioa. Informazio horri 19/2013 Legearen 15. artikuluan jasotako mugak aplikatzen zaizkio, baita izaera pertsonaleko datuen babesetik eratorritakoak ere. Antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko informazioa argitaratzen du, baita garrantzi juridikoa, ekonomikoa, aurrekontuetakoa eta estatistikoa duen informazioa ere.

Bere jarduerarekin lotuta, emandako ebazpen eta egindako akta guztiak argitaratzen ditu, eta honako hauei buruzko informazio osoa ematen du: erreklamazioaren ezaugarriak, sexua, sartzeko erabili den kanala; erreklamazioa jarritako administrazioa; emandako, ukatutako edo ez onartutako informazioa; ebazpenaren zentzua eta ebazpenaren edukia betiere erreklamazioaren identifikazioa babestuz, baita erreklamazioaren sarrera-data eta ebazpen-data ere. Informazioa aurreko edozein aldagai erabilita iragaz daiteke, eta, beraz, eskuragarri dago. Formatu irekietan ere badago, Open Data Euskadin; berrerrabiltzeko. Orobat, gune horretan argitaratuta daude Informazio Publikoaren Sarbidetako Euskal Batzordearen ebazpenei jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoei Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako epaiak.

Legeak 3 hilabeteko epea ezartzen du erreklamazioak ebazteko, eta epe hori igarota, ezetsizat joko da. Batzordeak espedienteen instrukziorako bi kide baino ez dituen arren (dedikazio eskusiborik gabeko funtzionarioak, eta eginkizun horiek beren lanpostuari dagozkion zereginekin txandakatzen dituzte), **erreklamazioak ebazteko batez besteko denbora muga horren oso azpitik dago**, hurrengo koadroan egiazta daitekeenez. Ikus daiteke, halaber, 2022koa dela ebazpen-epe laburrena, 38 egun. Hala ere, 2023an, ebazteko batez besteko denbora luzatu egin da, baina horrek ez ditu gainditu ezarritako epe-mugak, hau da, 49,9 egun.



URTEA	ERREKLAMAZIOAK EBAZTEKO BATEZBESTEKO EPEA
2016	48 egun
2017	54 egun
2018	54 egun
2019	49 egun
2020	56 egun
2021	44 egun
2022	38 egun
2023	49,9 egun

Vitoria-Gasteizen, 2024ko otsaila.